

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Tasubinsako garbitegi industrialeko sail berria inauguratu du

Noainen kokatua, 32 pertsona ariko dira hasiera batean lanean, eta haietatik 12 lanean hasiberriak izango dira

Viernes, 01 de junio de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Noaingo Mocholi industrialdean dagoen Tasubinsako garbitegi industrialeko sail berria inauguratu du gaur eguerdian. Bertan 32 pertsonak egingo dute lan hasiera batean, eta haietatik 12 lanean hasiberriak izango dira eta 20 taldeko beste lantegi batzuetatik etorritakoak. 3 urteko epean zentroan 80 pertsonak lan egitea aurreikusten da.



Agintariak Tasubinsako garbitegi industrial berria bisitatzen.

Yolanda Barcinak azpimarratu duenez, albiste txarrak ugari diren garai honetan "lanpostuak sortzen dituzten enpresa hauen guztien lana aitortu behar da". "Topatu dituzuen egoera zail guztiei buelta emateko borondatea dago hemen", erantsi du.

Iragan ekainera arte BSH enpresarako materialak egiteko ziren instalazioak negozio-lerro berrirako egokitu dira, 4,5 milioi euroko inbertsioa eginez.

Aurreikusita dago lana bana dadila Nafarroako nahiz inguruko erkidegoetako (Aragoi edo Errioxa, esaterako) ospitale-jardueraren (% 80) eta hoteletako jardueraren artean (% 20). Hasiera batean, astean 6 eguneko zerbitzua eskainiko du, txanda bakoitzeko 7.500 kilo/eguneko ekoizpenarekin, eta bi txandatan 15.000 kilo/eguneko heldu ahal izango da.

Lantegia 2.300 metro koadroko lursail batean dago, 1.700 metro koadroko nabe batez eta 115 metro koadroko bulegoetz osatuta dago. Nabea bi gune zehatzetan banatuta dago (garbitzeko gunea eta prozesuko gunea), eta biak osasun-hesi batek bereizten ditu.



batean inauguratu da, eta bertan parte hartu dute Barcina

Lehendakariak gain, Landa Garpen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoecheak; Noaingo alkate Óscar Arizcuren-ek eta Tasubinsako lehendakari Usúe Zulet-ek.

Tasubinsa (Nafarroako Azpi-kontratazio Industrialeko Tailer Osagarriak SA) irabazi-asmorik gabeko sozietate anonimoa da, eta haren helburu nagusia ezintasuna duten -adimen-urritasuna dutenena bereziki- pertsonen laneratzea eta gizarteratzea da. Foru Gobernuak eta enpresario nafar talde batek sustatutako "[Buelta eman nahi diogu](#)" kanpainarekin bat egin du enpresak, krisi ekonomikoa gainditzeko ekimenak eta ahaleginak batzeko xedearekin.

Sozietatea 1989an sortu zen Nafarroako Gobernuaren eta ANFASen (adimen-urritasuna duten pertsonen aldeko Nafarroako Elkarte) artean izenpetutako akordioaren ondorioz jaio zen, hari bereiziz ezintasuna duten pertsonen enpleguaren kudeaketa, besteak beste

Gaur egun Foru Komunitatean banatuta dauden 14 lantegi ditu eta, haiekin batera, bi langune eta kotsolidazioko hiru zentro, 1.311 pertsonari lana ematen dietenak; kopuru horretatik % 87 ezintasunen bat duten pertsonak dira.

Bi zentro-mota kudeatzen ditu: beste enpresa batzuentzat ekoizpen-lana egiten duten enpleguaren zentro bereziak (BSH, Scheider, Cinfa, Volkswagen, Azkoyen...) eta okupazioko zentroak; azken horiek, enpresa batean integratzea eragozten dieten aldi baterako ezintasun handia edo ezintasun handi iraunkorra duten pertsonentzat da.